BIZITEGI ERAIKINA — TXURRUKA 9

D MAILA



Egilea eta data: Jose Maria Mujica; 1871

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi 1945eko bi jasodura atzeraeman (lehenengoak jatorrizko txapituladun estalkipea ordezten du). Jatorriz behe oinean harlanduzko fatxada (gaur egun oso eraldatua), eta goi oinetan zeramikaz estalia, leiho baoen azpadurak nabarmenduta. Behe oineko lokalaren baoak 1945ean bateratu zituzten. Jatorrizko proiektu komuna Txurruka 11rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak, atzeraemanak.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotutakoak, behe oineko baoen eta fatxadaren konfigurazio bateratuarekin lotutakoak barne.